

PERTSONAK

Ekhilur kontu bat izateak abantailak ditu zuretzat, baita zure auzoarentzat, zure hiriarentzat eta inguruarentzat ere.

Ekhilur kontuak diru-zorro birtualak dira, eta ez dute loturarik ez kontu korrante batekin ez kreditu-txartel batekin. Garraio-txarteekin egin ohi den bezala kargatu behar dira.

Zure kontua kargatu ahal izango duzu kreditu edo zordunketa txartel batekin ekhilur.eus webgunearen bidez, 50€-tik aurrera. Kargak ez du inolako kosturik. Zure ekhilur kontuan kargatzen duzun dirua edozein ekhilur saretan erabili ahal izango duzu, baina jasotzen dituzun hobariak lortu dituzun tokiko sarean bakarrik erabili ahal izango dituzu.

Ekhilur kontu bat lortzeko kooperatibara bazkidetu behar zara (*kapital sozialari egindako 10€-ko ekarpen bakarra*). Ekhilur kontuaren mantentzea 1,95€ da hilean, eta ekhilur kontutik bertatik kobratzen da.

Bazkideek hitza eta botoa izango dute kooperatibaren batzarrean.

Azkenik, Ekhilurren, pertsona guztiok gure inguruko gizarte-ehuna indartzearen aldeko apustua egiten dugu. Hori dela eta, kooperatibako kontu bakoitzak aurreko hilabetean zuen hileko batez besteko saldoaren % 0,5 emango dio hileroko aukeratutako elkarte bati. Gehienetan zentimoak dira. Ez du aparteko ahaleginik ekarriko, baina erabiltzaile askoren lankidetzara oso lagungarria izan daiteke elkarteentzat, ekarpen horiek Ekhilur sarearen barruan erabiliko baitituzte. Horregatik, diru horrek zure komunitateko sare ekonomiko eta soziala indartzen jarraituko du.

Ekhilur sare osoan

Ekhilur sareko saltokietan erosita, hobariak jasoko dituzu zure ekhilur kontuan erosketa egiten den unean, hurrengo erosketetan gastatzeko. Sare lokal bakoitzean erabakiko diren beste abantaila batzuk ere egongo dira.

Hernaniko sarean

Hernanin erroldatutako ekhilurreko bazkidea bazara, dendetako hobariak eta udalak eskainitako hobariak jasoko dituzu. Halaber, sistema proba dezakezu bazkidetu beharrik gabe, udalaren abala onartuz, baina kasu horretan bakarrik udalaren hobariak jasoko zenituzke.